

OSTIRALA, 2024ko UZTAILAREN 12a

*Karmenak*

**2024**

PASAIA

• OARSO BIDASOKO •

**HITZA**

# Karmenak, Trintxerpe iraultzeko

**Hemen dira Pasaia udako  
laugarren festak, Trintxerpekoak.  
Gaur hasi eta asteartera arte,  
barrutia hankaz gora izanen da • 27-30**



**Goieko**

Gora Karmengo  
jaiak!

GOI MAILAKO EKOLOGIA

943 634 536 [www.goieko.com](http://www.goieko.com)



Imanol Saiz

## «Herriari ahalik eta gehien ematen saiatu naiz beti»

**J**ai batzordean, danborradan, musika eskolan, AEKn... Saltsa guztietan ibilitakoa da Alvarez de Arcaya, baita hainbat borrokatan ere. Mugikortasun zailtasunak izan arren, Trintxerpeko sare aktiboaren parte garrantzitsu izaten jarraitzen du, eta herriak aitortza egin nahi izan dio. «Ahal duen neurrian, ahal duen bakoitzean hor dago. Ahal duenean zutik eta ezin duenean karrotxoarekin. Baina beti hor dago», azaldu du Jai Batzordeak.

**Nola jaso duzu herriak egin nahi dizun aitortza?**

Oso-oso pozik eta harro. Ohore handia da niretzako, oso handia. Eta urduritasuna baino, ardura sentitzen dut. Gai-xotasun bat daukat, eta honek daukan gauza txarrenetakoa nekea sentitzea da. Saltsa guztietan egote horrek asko nekatzen du, eta ez dakit gai izango naizen ekintza eta ekitaldi guztietara iristeko, hori gustatuko litzaidake. Irrikaz nago.

### MARIBEL ALVAREZ DE ARCAJA TXUPINERA

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

**Jai Batzordekoen arabera herriko sare aktiboaren parte garrantzitsu zara. Saltsa guztietan ibilitakoa zara.**

Saltsa guztietan ibili naiz, bai. Dantzaria izan nintzen, zuzendari bezala bukatu nuen, AEKn ere sartu nintzen, kanpamenduan, danborradan, Inudeetan, Jai Batzordean...

**Nondik atera duzu denbora, bada?**

Nire senarra eta semeari esker. Etxeko gauzak banatu ditugu [barrez]. Eta semea ni baino saltseroagoa atera da! Odolean daramat eta hori pasa diot. Nire ama eta aita ere oso saltseroak ziren, haiengandik datorkit hori. Nire

anaia ere saltsa guztietan ibilitakoa da. Izatekotan eta norbaitekin ateratzeko-tan nire anaiarekin atera beharko nuke txupina botatzera. Behetik ikusiko nau, danborradatik.

**Balkoira igotzeko gogoz?**

Bai, oso berezia izango da. 2008an jaietako dama bezala atera nintzen, karrozaren goian egon nintzen. Urte horretan oso maitatuta sentitu nintzen. Eta esaten nuen: «Ez dut horrelako momentu berezi bat sekula biziko berriro». Eta begira, aurten berriro tokatu zait! Ostiralerako irrikaz nago [elkarrizketa hau asteartean egin zen].

**Norekin gogoratuko zara gaurko txupinazoan?**

Familiarekin, gertu daudenekin. Eta baita hainbeste gauza transmititu zizkidaten nire gurasoekin ere. Nire senarrarekin ere beti hor egoteagatik, eta nola ez, semearekin. Itzultzeko gogoz nago. Polita izango zen semea txupinazoan egotea, baina ezin da. Australiatik jarraituko du, bideoak eta argazkiak bidaltzeko eskatzen ari zait.

**Bizitza oso bat eman duzu Trintxerpen. Zer eman diozu herriari eta zer eman dizu herriak zuri?**

Herriari ahalik eta gehien ematen saiatu naiz. Hemen atzean [Gudarien plazako dorrea seinalatuz] jaio nintzen, eta ez naiz Trintxerpetik mugitu. Beti erronka batzuk izan ditut. Batetik, inklusioaren alde borrokatu dut, gazte, migrante edota baliabide gutxien dituztenenei laguntzeko. Beti laguntzeko prest egon naiz, eta beti berdintasunaren alde. Oso tolerantea naizela esaten didate, berdin zaidala nor dudan nire alboan. Kultura, dantza, musika... horri garrantzia handia eman diot beti, eta nola ez, euskarari, hori izan da nire borroka nagusietako bat.

Eta Trintxerpek niri, bizitzeko leku atsegingarri eta baketsu bat eman dit. Eta nahiz eta herri erdalduna izan, ikusi dut urtez urte aldatzen ari dela egoera, eta gero eta gehiagok maite dutela euskara. Niri bost axola alboak euskaraz badakien edo ez, ongi edo gaizki ari den. Auzoa egin behar da, herria egin behar da, eta Trintxerpen hori egin dugu, herritarrek egin dute hori. ■

# Festa euskaldunen erreferente eta ikur bilakatu dira

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA



Taldekieak, ikur bilakatu den 'Korkoiburu' buruhandiarekin. HITZA

Festak eztanda egingo du gaur arratsaldean Trintxerpen, karmenak hemen dira. Herritarrek aspalditik prest dituzte zapi urdinak eta arrantzale jantziak. 20:00etan botako dute suziria, baina aurretik ere izango da zerekin gozatu. Festa giroa suma daiteke barrutian.

Urteko egun berezienen atarian Trintxerpeko Korkoiburuarekin bildu da HITZA. Azken urteetan haien lana ezinbesteko bilakatu da jaiak, inauteriak, Euskararen Eguna eta abar luze bat antolatzeko. Bederatzi urte dira badiako uretatik jauzia egin zutela Trintxerpeko kaleetara Korkoiburuak. Hastapenak gogoratu ditu taldeko Ane Perezek: «Lau lagun bildu ginen poteoan. Ikusten genuen Trintxerpen ez zegoela ia ezer gazteei zuzenduta, eta bereziki euskaraz. Hutsune hori bete-

tzeko elkartu ginen», kontatu du. Poteo hartatik, pixkanaka, taldea osatzen joan ziren, eta 2015ean lehen bazkari herrikoa antolatu zuten. «Poteo eta bazkari batetik egitasmo handi bat etorri zen. Jende asko *engantxatu* zen».

Hasiera batean «gazteak saretzeko» asmoa bazuten ere, hedatzen eta handitzen joan dira Korkoiburuak. Haur, gazte eta heldu. Denetik aurki daiteke taldean, eta haiek antolatzen dituzten ekitaldi eta ekintzetan. «Larunbateko bazkarian 200 bat lagun joango gara, haur, gazte eta heldu».

Bederatzi urte hauetan herriari bira bat eman diotela aitortu du harro Perezek. «Jendeak asko parte hartzen du, beti galdezka ari dira ea zer egingo dugun, eta hori eskertzekoa da. Lehen ez zegoen euskarari lotutako horrelako giroa Trintxerpen. Gurekin badira eus-

karaz ez dakiten gurasoak, eta euskaraz ez jakin arren, hurbildu direnak eta esfortzu hori egiten ari direnak. Eta hori oso polita da», nabarmendu du.

Taldekoak urte hauetan lortutakoarekin pozik eta harro direla dio Perezek: «Gogoz egiten dugun lana da, merezi duena».

## Trintxerperen ikur

Azken urteetako ia ospakizun eta aldarrikapen guztietan bezala, karmeneta-ko hasieran ere Korkoiburuak presente izango dira, ordezkari paregabearekin. *Korkoiburu* buruhandia bertan izango da, haurren eta ez hain haurren gozamenarako. «Hasieran haurrek ez zuten ezagutzen, baina orain asko maite dute. Ikur bat bilakatzen ari da. Zerbait egin dugu, badakite hor gaudela», dio, hunkituta. ■





## EGITARAU OSOA HEMEN

labur.eus.oarsoagenda

## JAIEN AURKEZPENEAN, HARRERA

**GAUR, 19:15EAN.** 20:00etan botako du karmenen hasierako txupina Maribel Alvarez de Arcayak. Aurretik, baina, alka-teordetzako areto nagusian festetan era batera edo bestera protagonista izango direnei gorazarre egingo diete: txupinerrari, danborradetako omenduei nahiz egitarauaren azalaren egileari zapiak emango dizkiete. Illumbe otxoteak girotuko du ekitaldia.



Trintxerpeko Jai Batzordea



Trintxerpeko Jai Batzordea

## AZKUENE ALDEAN BADA GIRO

**GUNEAK.** Karmenen giro guztia ez dago Euskadi etorbidean eta inguruko plazetan. Handik goraxeago, Azkuene aldean bada zer egin. Hala, besteak beste, herri bazkaria izango da igandean 14:00etan hasita (irudian iazko partaideak). Gainera, astelehenean goizez patata tortilla lehiaketa jasoko du auzoak, eta arratsaldean, haurrentzako tailerrak. Azkueneko danborrada bihar aterako da, 17:30ean.

## ZAINDARIAREN EGUNEAN, ITSASORA

**ASTEARTEAN, 17:00ETAN.** Asko dira karmenen barruko danborradak. Horietatik azkena eta beharbada bereziena Karmengo Amaren egunekoa da, marinelena. Elizatik atera, zaindariaren irudiarekin ontzian sartu, eta badiatik osteratxoa egiten dute burrunbako partaideek. Ondoren lehorreratu eta barrutitik bira egingo dute.



Olaia Gerendiain



zure **taxia!**

**Taxi Jaizkibel**

Donibane. Antxo.  
San Pedro. Trintxerpe. Lezo

**943.39.14.14**